

Kanpaina datutan

Euskara Elkartearen bazkide kanpaina urtarrilaren 28an hasi da. Bertan, 13 herritako elkarteek parte hartu dute.

Kanpaina ezagutzera emateko, hainbat euskarri erabili, ekitaldi antolatuta eta argitalpenez baliatu dira:

-Euskarriak: 2.500 kartel, 50.000 eskuorri (elkarte bakoitzari egokituta), 80 irrati kuña eta 28 iragarki Euskal Herri mailako prentsan.

-Ekitaldiak:

o Prentsaurrekoa eta irrati elkarriketak Euskal Herri mailan.

o Herrietako ekitaldiak: 13 egitarau dira.

-Hedabideak:

o Euskal Herri mailako irrati, egunkari eta aldizkariak.

o Tokiko hedabideak orokorrean



EUSKARA ELKARTEETAN PARTE HARTZEKO DEIA

Hego Euskal Herriko 13 euskara elkartek bazkidekanpaina jarri dute martxan, urtarrilaren bukaeran. Urtero hainbat elkartek abiatzen dituzten kanpainen beste erakusgarri bat da honakoa, 13 elkartek batera martxan jarri dutena, beraien bazkide multzoa handitu asmoz. Garrantzitsua da bazkide talde handia izatea. Baina zergatik? Euskara elkarte guzti-guztiak jendartearen ekimenez jaiotakoak dira. Hastapenetan euskaldun talde batek borondatezko lana eta ekimenarekin, herri edo eskualdeko euskararen erabileran eragiteko helburuarekin, elkarteak sortzeko pausoak eman dituzte zenbait herritan. Ehunka elkarte izango dira une honetan Euskal Herrian era horretara sortutakoak. Eta hastapeneko lagun talde batzuen ahalegin hori jendartearen ahalegin bilakatzen da, ondoren.

"euskara elkartearen ezaugarria da bazkideen pluraltasuna"

Zer eskaintzen dio bazkide talde zabal batek euskara elkarteari?

o Pluraltasuna. Bazkide asko dituen elkarte talde askotarikoa da gehienetan. Euskara elkartearen ezaugarri garrantzitsua da bazkideen aniztasun hori: adin eta pentsaera ezberdinetako euskaldunak biltzen dituzte euskara elkarteak.

o Jendartearen babesa. Elkartearen atzetik herri bat dagoela erakusten du bazkide talde handi batek, elkarte bere inguruan ondo sustraitua dagoenaren adierazle argia da.

o Erreferentzialtasuna. Herriko euskaldunen artean elkarteak bere lekua du. Honek lagundu egiten du, era berean, hainbat erakunderen aurrean bitartekaria izaten.

o Babes ekonomikoa. Bazkide talde batek elkarteari ematen dion oinarri ekonomikoa garrantzitsua izan daiteke bazkide talde handi batekin. Elkartearen autofinantzaketa maila handitzeak bestelako finantzazio iturrietaniko dependentzia txikitzea dakar.

o Kolaboratzaile taldea. Gero eta bazkide gehiago izan, orduan eta aukera handiagoa egoten da borondatezko lana eskainiko duten kideak



EMAKUMEOK, AURRERA

Inguruan ditugun emakumei erreparatzen badiegu, etxean, lanean, soldatetan, etab. diskriminatuta ikusten ditugu. Seme-alabei euskaraz egin arren, askok gero euren artean gaztelaniaz egiten dutela egiazta dezakegu.

Egoera hau onartzen ez dugulako, etsitzen ez dugulako eta beste egoera batera iritsi nahi dugulako, sortu zen EKIN elkarte. Gure helburua euskal emakumearen garapena lortzea da, emakumeok eragiten ditugun esparruetan euskal kultura eta euskara normalizatzea ere.

Alde asko ditu emakumearen garapenak. Horietariko batzuk sindikatu eta alderdi politikoei dagozkie. Euskararen arloa da guk gure gain hartu duguna. Hizkuntza eta kultura ondorengoei ematean, emakumeak indar handia du, seme-alabak maitasunez zaindu eta babestean, erabiltzen duen hizkuntza umearen nortasunari itsatsita geldituko zaiolako. Eta emakumez diogunak berdin-berdin balio du gizonezkoentzat ere, horrela jarduten dutenean.

EKIN elkartean proiektu berritzailea dugu martxan. Amaitu berria dugun 2000-2004 planaren itzalpean sortu dira famili txokoaren planteamendua, talo tailerrak, autobabes ikastaroa, etxeko lanak konpartitzeko sukaldaritza eta josten ikasteko kurtsoak, norbera barrutik eta kanpotik ondo sentitzeko tailerrak, etab. Bi gunetan gaude Arrasa-



ten: Hirigunean, aspalditik, eta Musakolan, oraintsu gure proiektua martxan jarri berria dugu-eta.

Gure eragin-eremua Arrasate denez, bertako Udalari babes iraunkorra ematea eskatu diogu. Proiektua, baina, urteroko diru-laguntzetatik kanpo geratu da. Elkarlanerako hitzarmena egiteko ere eskatu diogu eta oraindik erantzunaren zain gaude.

Etorkizunerako asmoak dira orain landu nahi ditugunak, 2005-2009 planaren bidez. Horretarako, bazkideen laguntza dugu oinarri, kuotaren bidez eta, batez ere, borondatezko lanaren bi-

FEDERAZIOA ●●●

BATZAR NAGUSIA MARTXOAREN 19an IZANGO DA

Topaguneak martxoaren 19an egingo du bere urteroko Batzar Nagusia. Elkarte guztientzat hitzordu garrantzitsua da, bertan erabakitzen baitira federazioaren ildoak, planak eta ordezkariak.

Ohiko gai-zerrenda izango du aurtengo bilerak. Hasteko, 2.004ko balantzea egin eta 2.005eko Kudeaketa Plana onartzea izango dira martxoaren 19ko lehenengo betebeharrak. Hala ere, hori ez da 2.005eko plana ezagutu eta eztabaidatzeko lehen aukera izango. Azkenen urteetan egin izan den bezala, aurtun ere Kudeaketa Plana aurkezteko hitzorduak jarri dira. Lau bilera egun finkatu dira horretarako Andoain, Bilbo, Gasteiz eta Atarrabian, otsailaren bukaeran. Horrekin batera, bazkideek martxoaren

8ra arteko epea izango dute Kudeaketa Planari ekarpenak egin ahal izateko.

Batzar Nagusian memoria eta planak aurkeztu eta bozkatu ondoren, 2.004an Topagunean bazkideetza eskatu duten bost elkarteak aurkeztuko dira, eta Batzarraren oniritzia eskatuko da. Era berean, Topaguneko Zuzendaritza Batzordeak federazioa bi elkartetan bazkideetzeko proposamena egingo du. Aurtun bi elkarteotan bazkideetza eskatzeko hartutako behin-behineko erabakia berresteko eskaria egingo du Federazioak, hain zuzen. Honakoak dira elkarteak: sortu berri diren Soziolinguistika Klusterra eta Tokiko elkarte (tokiko telebistek sortutako elkarte). Azkenik, Zuzendaritza Batzordean zenbait kideren

Formazio eta adiskide-tze jardunaldiak nafarroan

Nafarroako Topaguneak antolatuta eta herrialdeko eragileei zuzenduta, 24 lagun bildu ziren, urtarrilaren 29an, Iruñeko Txantrea auzoko Euskaldunon Biltoki Elkartearen. Hurrengo urteei begira, lan ildo eta lehentasunen inguruan mintzatzea izan zen jardunaldi horietako xedea, elkarte eta horien hedabideen egoera optimizatzeko elkarlanetik bideak jorratzea ere.

Nafarroan eragin zonalde ezberdinak daudenez, errealitateari ondoen erantzuteko asmoz, hiru lan talde eratu ziren.

Azpimarratzekoa da adostasuna bilatzeko guztiek agertu zuten aldeko jarrera.

Gai horretan sakontzeko zonaldeka aurtan egingo diren bileren

Non da justizia? Zer Zuzenbide Estatu dugu?

Dagoeneko, 2002ko otsailaren 20an Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik bi urte pasa dira. Euskaingintzan eta euskarazko prentsan dihardugunontzat ez ezik, jendarte osoarentzat ere kolpe gogorra izan zen euskarazko informazio orokorreko egunkari bakarraren itxiera, arduradunen atxiloketa eta espetxeratzea ere bai. Euskara elkarteek horrela adierazi genuen orduan. Bi urte pasa dira jadanik euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso hartatik, eta Euskaldunon Egunkariarekin eta bertako arduradunekin egindakoak bueltarik gabeko ondorioak eragin zituen.

Bi urtean ez dira oraindik frogatu egindako salaketak. Oraindik egoera berean jarraitzeko zer arrazoi dagoen publikoki azal-

Kultur Errotaren 8. edizioa. Abian goaz.

Topagunearen kultura sailak abian jarri du Kultur Errotaren 8. edizioa. Guztira, 2.004ean, 195 emanaldi kudeatu ziren, horietako gehienak finantzatu ere.

Urtez urteko arrakasta ikusita, 2005ean iazko kopurua gaindituko dela uste dugu. Izan ere, urtarrila-uztaila eperako 109 emanaldi onartu dira eta iraila-abendurako beste horrenbesteri aurre egiteko modua egongo dela aurreikusten da. Zalantzarik gabe, formatu txikiko ikuskizunak antolatzeak herrietako euskarazko eskaintza kulturala aberasteko balio duela erabaki dute elkarte askok eta, horretarako, Kultur Errota tresna egokia dela.

Ikusleak gureganatu, ohitura sortu eta, ondorioz, euskararen

Trolebu

Aulestiko Trolebu Kultura Elkar-
tea Topaguneko bazkide berria dugu. Lea-Artibai eskualdean (Bizkaia) Federazioak daukan bazkide bakarra da, hain zuzen. Euskara sustatzeko elkarte bezala sortu zen 1.989an. Ibilbide luze horretan, zenbait kontuk eduki du eragina Troleburen norabidea finkatzerakoan, baina kulturagintza izan da azkenotan elkarrearen ildo nagusia. Aulesti herri txikia bada ere, urtetik urtera, kultur egitarauari begiraturaz gero, dinamika handiko elkarte baten aurrean gaudela ohartuko gara. Honakoak antolatu dituzte, besteak beste: alfabetatze ikastaroak, merkatari-tza euskalduntzeko kanpainak, Trolebeka (euskaraz alfabetatzeko beka), literaturari buruzko ekitaldiak, bertsolaritza,

Kultura saila. Egindakoa eta egitasmoak

Kultura sailak bere urteko batzarra urtarrilaren 22an egin zuen, Durango-ko Plateruena kafe antzokian. Hogeita hiru elkarteren ordezkariak bildu ziren eta sailak abian dituen zirkuituen balantzea egiteaz gain, aurrera begirako zenbait egitasmo aurkeztu ziren. Aurrekoarekin batera, prestakuntza zehatza eta zerbitzuez gaineko sustapenaren inguruko gogoeta egin zen.



Hilero biltzen den kultura batzordean bi kide berri izango dira aurrerant-

Soziolinguistika Klusterra

Ezaguna da 2.004ean sortu dela Soziolinguistika Klusterra. SEI elkarteak urteetan egindako lanean oinarritzen da Klusterrak hemendik aurrera izango duen bilakaera. Hainbat erakunderen babesarekin sortu zen egitasmoa da hau (tartean ondorengoak daude: SEI, UEU, Huezi, Emun, Elhuyar eta Nafarroako Euskara Teknikarien elkarteak, besteak beste).

Soziolinguistikaren arloan egin ditzakeen ekarpenengatik egitasmo interesgarria izan daitekeela iritzi dio Topaguneko Zuzendaritza Batzordeak. Horregatik, behin-behineko bazkide erabiltzaile izateko eskaria egin du Topaguneak, Zuzendaritza Batzordearen erabakiz. Erabaki horri oniritzia

FILM LABURRAK, NEURRIRIK GABEKO PLAZERA.

Hau ez da Kultur Errota, hortaz, aurtentzen ez du zortzigarren edizioa burutuko, bigarrena baizik. Ez du 190 emanaldi baino gehiago eskainiko, 24 izango dira. Ez da urte osoan zehar egingo, soilik, otsailaren 17tik martxoaren 23ra. Ez du hamar

kultur alor ezberdin jorratuko, bakarrean oinarritzen da. Ez du 44 elkartek erabiliko, 22 animatu dira. Ez du 90 ikuskizun eta 82 kultur gile bilduko, bost baino ez eta, gainera, bostek bat egiten dute.

Film laburren zirkuitua da eta, dagoneko, badakizue nolakoa den eta ez den. Antz txikia Kultur Errotarekiko, baina, hala ere, zenbait ezaugarri komunean dituzte: euskaraz sorturikoak eta kalitate handikoak, biak

Hona aurtengo menua: Ostertz 15' (Iñaki Beraetxe-Iñigo Kintana), Lepo-koa 23' (Safy Neboou), Amnesia 6' (Angel B. Aldarondo), El salto de Bea-
mon 15' (Ane Muñoz), Amuak 9' (Kol-

do Almandoz).

Guztira, ordu eta laurdeneko emanaldiak izango dira eta gehienen ondoren, zuzendarietako batekin hitz egiteko aukera izan dadin, ikusitakoaren inguruko solasalditxoak antolatu dira.

Laburrak dira bostak. Baina tamainak garriturik ez duenez, badira laburragoak eta luzeagoak ere laburren artean. Zirena da azken batean. Lumière anaien asmakizun hura, baina soinua eta ahotsa gehituta. A! Euskaraz dakite.

"Ordu eta laurdeneko emanaldien ondoren solasaldiak izango dira."

Baina tamainak garriturik ez duenez, badira laburragoak



Harrera ona egin diote elkarteek zirkuituaren bigarren edizioari.

Datozenak...

Hurrengo hilabeteotarako zenbait hitzordu kontuan har itzazue:

- Urteko Batzar Nagusia:
o Martxoaren 19an: Urteko Batzar Nagusia Durangoko Landako Elkartegian.

		HERRIA	ANTOLATZAI-
17	19:30	Inun	Inun iruten
23	19:00	Ordizia	Hitzaro
23	20:00	Oion	Ttiki-Ttaka
24	20:00	Erandio	Berbots
24	21:30	Aretxabaleta	Loramendi
25	20:30	Inurtzun	Aizpea
Martxoak			
2	19:30	Hernani	Dobera
2	21:00	Azkoitia	Maxixatzen
3	20:00	Oñati	Laixan
3	20:00	Atarrabia	Karrikaluze
3	20:30	Arrasate	AED
6	19:00	Soraluze	Pilpilean
9	20:30	Etxarri-Aranatz	Bierrik
10	20:00	Deustua	Berbaizu
11	19:30	Areatza	Ganoraz
15	20:00	Santutxu	Asapala
17	20:15	Durango	Berbaro
17	20:15	Ermua	Euskal Biru-